

Gu Garazi Amarika, Alba Alonso, Maria Bastante, June Casero eta Borja Fuentes gara, Ibaizabal Ikastolako HH2ko ikasleak eta Osplay taldea osatu dugu. Gure proiektua ospitaletan hartzaindegi bat sortzea da, hasiera batean Galdakaoko Osakidetzan kokapena izango duena, eta aurrerantzean hedatu daitekeena. Honen ideia "New Amsterdam" telesailetik sortu zitzaigun, ospitale batean kokatzen dena. Bertan etengabe ideia berritzaileak izaten dituzte, eta horietako bat hartzaindegi bat sortzea izan zen, eta horrek guri lana aurkezterakoan inspirazioa piztu zigun, ondorioz lan hau gauzatzeko bidea hartu dugu.